

HIZKUNTZEN AUZIAZ



ure herri honetan, hizkuntzen auziaz gero eta gauza harrigarriagoak entzun eta irakurtzen ditugu Europaren batasuna lortu nahi dugun une honetan. Europa guziok osatuko ez bagenu bezala edo Europa orotarikioa ez balitz bezala.

Espainiako Konstituzioak bere «*Titulo preliminar*» haren 3 artikuloren 2. eta 3. ataletan aipatzen zuen bidetik Euskal Autonomia Erkidegoan

gehiengoak onartu zuen elebitasunaren ofizialtasuna. Horrela, historian lehen aldiz aukeratu zen 1948an ONU-k Giza Eskubideen Agerian gomendatzen zuena. Eta horren arabera, baita ere tokian tokiko hizkuntza naturalak irakaskuntzan babesteko 1953an Unesco-k bere aldetik agertu zituen arauak, «*L'emploi des langues vernaculaires dans l'enseignement*», delakoan zioenez. Nik dakidanez gazteleraz inoiz argitaratu ez diren arauak noski.

Horren arabera, legezko denez, Hondarribiko San



San Jose Hijas de la Cruz Ikastetxea

José Hijas de la Cruz deritzon kolejoak arau horiek bete baizik ez du egin filologia irakasteko behar zuen irakaslea hautatzean.

Hori dela eta, kexu agertu da Victoria Eugenia Muñoz Jiménez, berak baino maila beheragoko bati eman diotelako irakasletza (ikus «*El Diario Vasco*», «*Cartas al director*» saila, 1998ko ekainaren 9koa; eta sail berean, ekainaren 16an,

Ander Usabiaga Garcíak eman zion erantzuna).

Gai berean lizentziatua denari, irakasle titulua izanik, uka ezinezkoa zaio bere gaitasuna. Gaia edo materia nork hobetu dakien ala ez gauza bat da, baina oso beste bat nork hobeto irakatsi lezakean. Hori, pedagogia kontuan neurtu beharrezkoa da eta, elebitasuna ofiziala den tokian, bi hizkuntzak ezagutzen dituenak beti izango du aukera hobea.



Ikasleari dagokio, ulertarazteko ahalmen bi horietan, bietarik aukerakoen zaiorenean hobeto adierazi ahal izatea.

Kontutan hartu behar baita, haurrak, etxeke ohituraren eraginez gainera, lehen mailako eskoletatik elebitasunean hezituak datozela; hala ere, batzuk, erabileraren arabera erraztasun gehiago dakarte batean edo bestean. Holakoetan nor izango da irakasle hobea? Hizkuntza batean soilik irakasten duena ala, bi jakinik, aurrean duen ikasleari egokien zaiorenean adierazteko aukera duena?


Hizkuntza batean ulertzea nekez zaion ikasle batentzat alperrikakoa da goragoko mailaz hornitua den irakasle jakituria, ulertarazteko hizkuntzarik aukerakoena erabili ezin badu.

Jakintza maila gorengoenak ez lioke balioko Txinan irakasle izateko, txinera ez baleki. Gure herrian ez da izango hainbesterainokoa, baina bai elebitasunean, ohitura edo erabileraren arabera, batzuk erraztasun gehiago dute batean edo bestean eta irakaslearen egitekoa da ikaslea ahalik eta erarik egokienean hezkuntzan hornitzea.

Euskara gaztelera baina hobeto dakien haurrai ere bere eskubidea zor zaio eta irakasleari dagokio erantzunkizun hori betetzea, haurrai aukerarik egokiena eskainiz.

Hala ezik, atzera begira jarriko ginateke, aurrera beharrean. Gaur egun, Erdi Aroko Kurutzada haien garaiko: «Hable en cristiano» esaldiak ez luke baliorik; ez bai gaude hurbildik ezagutu dugun frankismo diktadurapean. Hizkuntza naturalari, bere izate naturala zor zaio aurrez-aurre dugun Europaren batasunean. Hala baita gure euskarak baino hedadura gutxiago duten hizkuntzak ere errespetu gehiago duten Europa orokorrean. Hortarako ditugu ONU eta Unesco bezalako erakundeen kontseiluak.

JUAN SAN MARTIN



ARRAUNLARI

JATETXEA - RESTAURANTE

BUTRON PASALEKUA
ETXE ALAI
TELF.: 943 64 15 81
20280 HONDARRIBIA

Arroka - Berri

ERRETEGIA



Faroko bidea
Tel.: 943 64 27 12
20280 HONDARRIBIA

